

BIHARTIK ERREGAIEN GEHIENEZKO PREZIOEK URTEKO JAITSIERA HANDIENA IZANGO DUTE

Superra ia bi pezeta merkeago

■ Azken asteon dolarraren truke tasa egonkor egon arren eta nazioarteko merkatuetan petrolio kupelaren prezioak gora egin duen arren, erregaien prezioek behera egingo dute bihartik. Superra 1,7 pezeta merkatuko da, eta berunik gabekoa 1,8.


Erredakzioa / Donostia

BIHARTIK gasolinaren prezioek behera egingo dute. Super litroak gehienez 121,1 pezeta balioko du bihartik, orain artean baino 1,7 pezeta gutxiago. Berunik gabeko erregaia zertxobait gehiago merkatu, 1,8 pezeta zehazki, eta horrenbestez 117,4 pezetan salduko da erregai berdea. Hala agindu zuen atzo Espainiako Industria eta Energia Ministerioak.

Bihartik aplikatuko diren prezio jaitsierak urteko handienak izango dira. Abuztuaren amaiera aldera superra dezente murriztu zen. Ordukoan pezeta bat egin zuen behera super gasolinaren prezioak. Geroztik, gora-behera asko izan ditu erregaiaren prezioak. Batik bat dolarraren truke tasa igoerak eragin ditu prezio aldaketok. Espainiako Gobernuak agindu duen prezio jaitsieraren arrazoiak ez dira batere argiak. Izan ere, azken asteotan dolarraren truke tasa egonkor dago. Irailaren 24an, esaterako, dolarrak 149,342 pezeta balio zuen, eta herenegun 149,517 pezeta. Zentimo batzuetako igoera baino ez da izan dolarraren prezioan azken egunotan, eta hala ere erregaien prezioek behera egin dute.

Nazioarteko merkatuetan petrolio kupelak duen prezioari erreparatuta ere ezin da argitu gasolinaren merkatzea. Izan ere, duela astebete petrolio kupela 18,73 dolarretan saldu zen, eta herenegun 19,87 dolar ordaindu zen nazioarteko merkatuetan petrolio kupeleko.

Gasolioaren liberalizazioa • Gasoliaren gehienezko prezioak agintzari aspaldi utzi zion Espainiako Gobernuak. Erregai horien prezioak jaitsiko zirelakoan hartu




Donostiako gasolindegia bat.

ANDER GILLENEA

zuen gehienezko prezioak kentzeko erabakia. Alabaina, neurri horrek ez zuen aparteko eraginik izan prezioetan. Garraiolariek eskatuta, gasolioaren prezioa jaitsi dadin garraiolarien kooperatibei gasolioa saltzeko baimena eman nahi die orain Gobernuak. Gasolindegietako nagusiak, baina, oso kexu agertu dira, eta greba mehatxua ere egin izan dute, neurri horrek egundoko galerak eragingo omen dizkielako. Badirudi azkenean kooperatibei baimenak emango dizkiela Gobernuak, eta gasolindegietako nagusiei kalte-ordainak emango dizkiela. Gaur bertan horren inguruko erabakia hartuko du Gobernuak. X

SUPER GASOLINAREN PREZIOA



EAEko herritarrek 30.000 milioi inbertituko dituzte Endesan

■ Estatuak ez du oraingoz Babcock Wilcox eta La Naval enpresak pribatizatzeko prozesua zabaldu

Joseba Aiarza / Bilbo

EAE-KO inbertsoreek Endesa konpainia elektrikoaren akzioetan 30.000 milioi pezeta inguru (1.200 milioi libera) inbertitu dituztela jakinarazi zuen atzo Pedro Ferreras SEPIko (Industri Partaidetzarako Estatuaren Sozietatea) presidentek.

Ferrerasek eta Rodolfo Martin Villa Endesako presidentek Bilboko burtsan izan ziren atzo konpainia elektrikoaren pribatizazioa inbertsoreei aurkezteko. Estatuak Endesaren kapitalaren %67 dauka gaur egun SEPIren bidez. Iragan astelehenean sozietate honek konpainiaren %25 (800.000 milioi pezeta) jarri zuen

salgai burtsan. Pribatizazioa Espainian inoiz izan den garrantzitsuena da, eta baliteke datorren urrian estatuak konpainiaren beste %10 ere esku pribatuei eskaintzea.

Salgai jarritako kapitalaren %51 Espainiako inbertsore partikularrei zuzenduta dago, eta horietatik %7 inguru EAEn salduko dira, Telefonica eta Repsol enpresen pribatizazioekin gertatu zen moduan. Ferrerasek iragarri duenez, orain arte 600.000 inbertsorek eskatutako kapitalen balioa 1,5 bilioi pezetatik gorakoa da, hots, salgai dagoenaren bikoitza. Enpresako enplegatuek %6 eskuratu ahal izango dituzte, inbertsore instituzionalak (enpresek) %10 eta

gainontzeko kapitala nazioartean salduko da.

Babcock eta La Naval • SEPIko presidentek EAEko enpresa publikoak pribatizatzeko prozesuaren berri ere eman zuen. Babcock Wilcox eta La Naval enpresei dagokienez, Estatuak oraindik ez du pribatizazio prozesua zabaldu, irailean hasiko zela iragarrita zegoen arren.

Industria Ministerioa bi enpresa horientzako erosleen bila hasi da, eta B&Bren kasuan orain arte hartu-emanak besterik ez daude. Erosle posibleen artean Espainiako Duro Felguera, Euskal Herriko Mecanica de la Peña eta Suediako Kvaerner daude, baina hauetatik batek ere ez du

eskaintza zehatzik aurkeztu. La Naval untiolaren kasuan, berriz, elkarrizketarik ere ez dago.

SEPIko presidentek Tubos Reunidos eta Productos Tubulares enpresen bategitea ere aipatu zuen. Bi enpresa horiek bat egiteko epea datorren astelehenean bukatuko da. Ordurako lehenengoak bigarrena bereganatzeko negoziazioak bukatuta egon behar lukete, Tubacex enpresarekin batera EAEko hodi sektorearen berregituraketa egin ahal izateko.

Hala ere, Ferrerasek epeak atzeratzeko posibilitaterik bada goela esan zuen. Bi enpresek bat egin osteko taldearen kapitalaren %28 SEPIren esku geldituko da. X

Lola Eguren ez ditu hartu lan erreformaren aurka dauden sindikatuak

■ ELAk gogor kritikatu du Nafarroako Parlamentuko lehendakaria

A.Unanue / Iruñea

JOAN DEN astean Gasteizko Legebiltzarrean egin zuten moduan, ELA, LAB, ESK eta EILAS sindikatuak ordezkariek Nafarroako Parlamentura eraman zituzten atzo lan erreformaren aurka bildu zituzten sinadurak. Aipatu sindikatuak pertsonalki eman nahi zizkieten Lola Eguren Parlamentuko lehendakariari, eta elkarrizketa eskatu zitoten horretarako. Eguren sozialistak ez zituen hartu, ordea. Oso lanpetuta zegoela esan zien, eta sindikatuak buruek erregistroan utzi behar izan zituzten sinadurak.

Jose Elorrieta ELAkoburuari lotsagarria eta «sektarioa» iruditu zitzaion Egurenen jokaera, eta halaxe esan zuen, minduta, Parlamentu atarian, erreformaren aurka kanpaina egin duten sindikatuak Nafarroako langileen % 35 ordezkatzen dutela gogoratu ondoren. «Oso larria da egin duena. Kortesiak bada ere, hartu egin behar gintuen. Ez dugu eskatzen gurekin bat egitea, baina gutxienez begirune demokratikoa merezi dugu. Agerian gelditu da hemen izugarriko sektarismoa dagoela. Zenbait uste dute erakundeak interes politiko bartzertzaileen menpe daudela. Nabarismoa oso gogorra da».

Lan erreformaren aurkako agiriak Nafarroako 500 lantegiren atxikipena jaso du. Herrialdean ordezkaritza sindikala duten lau enpresetatik batek, beraz, sinatu du agiria. Lau sindikatuak ordezkariek oso kontent agertu ziren lortutako erantzunagatik.

LABen izenean, lan erreformak ezer onik ez duela ekarri azpimarratu zuen Rafa Diezek. LABeko buruaren arabera, garbi ikusi da erreformak ez duela enplegua sortu, are gutxiago lanpostu fijoak. Nafarroan, esate baterako, lan erreforma indarrean dagoenetik kontratu fijoen kopurua nabarmen gutxitu dela azpimarratu zuen. Esan zuenez, iaz egin ziren kontratuen % 6 fijoak ziren, eta aurreko kopuru hori ia desagertu egin da (1.500 kontratu fijo gutxiago sinatu dituzte). Gainera, kontratu mugagabeak apenas ailegatu diren % 1era.

Jose Mari Otaegi ELAko ordezkariek, berriz, zuzpertzeko ekonomikoa enpresariak baino ez dutela igarri nabarmendu zuen. Sinadura bilketa amaituta, lan erreformaren aurkako borroka lantegietan, lan hitzarmenen negoziaketan, segitzeko asmoa agertu zuten sindikatu abertzaleetako buruek. X